BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4953

EBAZPENA, 2011ko irailaren 16koa, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariarena, Txagorritxu Ospitaleko Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoari akreditazioa berritzekoa.

Txagorritxu Ospitaleko Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoak akreditazioa berritzeko egindako eskaera jaso da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Komite Etikoen akreditazioak arautzen dituen Osasuneko sailburuaren 1994ko irailaren 28ko Aginduaren 2. eta 6. artikuluetan (urriaren 24ko EHAA, 202. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa sortzeko 2005eko otsailaren 11ko 3/2005 Dekretuan eta sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak arautzen dituen 2004ko otsailaren 6ko 223/2004 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan izanik, eta Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen 2009ko azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren 13. artikuluak esleitutako funtzioak betez,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Akreditazioa berritzea Txagorritxu Ospitaleko Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoari.

Bigarrena.– Batzorde horretako kidetzat berrestea hauek:

– Presidentea:

Marianela Hernández López andrea, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Idazkaria

Felipe Aizpuru Barandiaran jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Itziar Alfonso Farnós andrea, farmakologa klinikoa.

– Batzordekidea:

Sebastián Iribarren Diarasarri jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Arturo Pinedo Roa jauna, Zuzenbidean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Jon González de Garibay Barbosa jauna, Ekonomian lizentziatua.

– Batzordekidea:

Carlos Egea Santaolalla jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Begoña Garitano Tellería andrea, Erizaintzako unibertsitate-diplomaduna.

– Batzordekidea:

Carlos Martínez Martínez jauna, Farmazian lizentziatua.

– Batzordekidea:

Javier Martínez Gorostiaga jauna, Farmazian lizentziatua.

– Batzordekidea:

Laura Barbero Cubillas andrea, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

– Batzordekidea:

Ernesto Pérez Persona jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

Hirugarrena.– Kontuan izanik jarraian zehazten den arloko osasun-baliabideen banaketa nahiz zentroetan Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoei dagozkien berezko zereginak betetzeko dauden bitarteko egokien baliagarritasuna, Txagorritxu Ospitaleko Batzordearen jarduera-eremu geografiko eta instituzionalean sartuko dira zentro hauetan egiten diren zentro bakar bateko saiakuntza klinikoak, zentro bakar batek baimena eman ondoren egindako behaketa-azterketak eta zentro bakar baten ikerketa-proiektuak:

– Txagorritxu ospitalea.

– Olaguibelgo espezialitate-zentroa.

– Arabako osasun-eremuko Familia Orientazio eta Lehen Mailako Atentzio Zentroak.

– Arabako osasun-eremuan kokaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko/Universidad del País Vasco (EHU/UPV) zentroak.

Laugarrena.– Batzordeak Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzara igorri beharko ditu funtzionamendurako prestatutako lan-prozedura espezifikoak eta bileren maiztasunari eta zehaztu duen gehienezko erantzun-denborari buruzko informazioa, han jasotzeko, eta haien berri emateko.

Horrez gainera, indarrean dagoen legediari jarraiki Osasun eta Kontsumo Ministeriora bidali behar dituen komunikazioak aurkeztu beharko ditu, izapidetzeko.

Bosgarrena.– Ebazpen honen helburu den akreditazioa indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta hiru urteko indarraldia izango du. Epe hori amaitzean, berritu egin ahal izango da, eskaera 1994ko irailaren 28ko Aginduaren 6. artikuluan zehazten den moduan aurkeztuta. Osasun eta Kontsumo Ministerioari eman beharko zaio horren berri.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea, eta interesdunek gora jotzeko helegitea jar dezakete honen aurka, Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzan edo Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzan, ofizialki argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 16a.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.